

Perla bila: hizkuntza baztertzailea Elhuyar Hiztegian

— — — — —

ENEKO SAGARZAZU MARTINEZ

(Elhuyarreko Hizkuntza eta Teknologia Unitatea)

Sarrera

Hizkuntza ez-sexista eta inklusiboa erabiltzea pil-pilean dago. Gaiaren gaineko kontzientzia asko zabaldu da gizartean azken urteotan, eta, ondorioz, hiztunok hizkuntzaren erabilerari buruz hausnartzen ari gara une oro. Euskarak genero gramatikalik ez izatea aitzakia izan da askotan arazoa alfonbraren azpira erraztatzeko. Eta egia da euskarak ez diela aurre egin behar inguruko hizkuntzetan dituzten erronka batzuei (bikoizketak direlakoak; esaterako, bi generoe-tako aukerak ematea, maskulino orokorra erabili ordez). Alta, euskarak baditu berezko erronkak, generoa beste modu batzuetan markatzen delako: adizki alokutiboen (hitanoa) eta generoa duten izenen bidez (*pertxenta* edo *matraka*), adibidez. Are gehiago: ekoizpen linguistikoaren egokitasuna aztertzeke, ez da nahikoa hitzei begiratzea; erabilerari ere erreparatu behar diogu. Lan honen abiapuntua ez da izan Elhuyar Hiztegian hizkuntza ez-sexista eta inklusiboa txer-tatzea, bertan aurkitu dugun hizkuntza baztertzailea moldatzea baizik. Hizkuntza baztertzailea edozein motatako diskriminazioa (generoa, arraza, desgaitasuna, sexu-orientazioa...) adieraz-ten duen hizkuntza moduan ulertu dugu. Elhuyar Hiztegia den itsaso zabalean, denboraren poderioz tinko iraun duten perlen bila aritu gara, hiztegi berdinzaleago bat lortzeko.

Aipatuko ditugun gai gehienak hiztegian landuta daude jada, baina aldaketa guztiak ez daude online bertsioan ikusgai. Beste batzuek, aldiz, etengabeko arreta eskatuko dute, aurre-rantzean hiztegitratuko diren sarrera eta adibideetan ere aintzat hartu beharrekoak baitira.¹

1. 2022ko ekainean Eli Manterola irakaslearen tutoretzapean UPV/EHUn aurkeztu genuen GRALaren egokitzapen bat da lan hau. Gehiago jakin nahi izanez gero, ikus bibliografia: Sagarzazu, 2022.

Aurrekariak

Badira hamabost urte hizkuntza baztertzaillearen gaia lantzen ari garela Elhuyarren. Garai hartan, sexismoa nabarmentzen hasia zen jada hizkuntzan: Amelia Barquínnek Emakunderentzat osatutako *Euskararen erabilera ez sexista* gidaliburua argitaratu zuen 2008an, eta, lau urte lehenago, Forgasek *De mujeres y diccionarios: evolución de lo femenino en la 22.ª edición del "DRAE"* (2004). Bi txosten horiek eragin sakona izan zuten Elhuyarren jardunean, eta, biok oinarri hartuta, zenbait ekimen atera ziren aurrera.

Haietan lehena Genero Zuzentzailea da, 2010ean Emakunderekin elkarlanean landua eta Microsoft Worden osagarri modura instala zitekeena. Barquín lanean oinarrituta, hizkuntza baztertzaillea detektatu eta aukera egokienak eskaintzen zituen Genero Zuzentzaileak. Programaren bigarren bertsioa ere argitaratu zen, 2017an.

Horrez gain, Emakunderen eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren babesarekin, *Feminismoa eta Berdintasuna* hiztegiaren garapena zuzendu zuen Elhuyarrek, 2020an. Edukiak lantzeko, Euskal Herri osoko emakume adituz osatutako talde zabal bat bildu zen, eta Euskararen Aholku Batzordearen Terminologia Batzordeak ere parte hartu zuen. Sailburuordetzak paperean argitaratu zuen, eta *Euskalterm* Euskal Terminologia Banku Publikoan ere integratuta dago.

Elhuyarren euskara-gaztelania hiztegiaren lehen edizioa 1996an argitaratu zen, eta gaur egunera arte beste hiru edizio argitaratu dira: 2000koa, 2006koa eta 2013koa. Lehen edizioaren garaian, hiztegiaren edizio bakoitza eguneratu egiten zen, eta hurrengo edizioa argitaratu arte dena berrikusteko denbora izaten zen. Baina, 1999. urtean, hiztegia Interneten eskuragarri jarri zenetik, Elhuyarren hiztegi-gintza goitik behera aldatu zen, eta, orain, lexikografia modernoaren erritmo frenetikoak ez du aukerarik ematen atzera begiratzeko. Online dagoenetik, milaka sarrera gehitu dira, baina zaila izaten da denbora eta baliabideak izatea dagoena eguneratzeko. Horregatik, 1996an sortutako sarrera batzuk, perlak balira bezala, nakar-geruzak eratzen aritu dira ia 30 urtez.

Testuinguru horretan, Elhuyar Hiztegian argi ikusi zen landu beharreko gaia zela; izan ere, gizartea eta hiztunon kontzientzia aldatuz doazen neurrian, hiztegiak ere islatu behar ditu aldaketa horiek. Nolanahi ere, hiztegien egitekoa ez da gustuko ez ditugun hitzak eta erabilerak ezkutatzea, baizik eta hizkuntzaren errealitate garaikidea deskribatzea. Horregatik, hizkuntza baztertzailleak ere badu bere lekua hiztegian, eta izango du, handik ezabatzeak ez baitu ekarriko ez hitza hiztunen ahotik desagertzea, ez gizartea berdinzaleagoa izatea. Hiztegia kontsultarako baliabide bat den heinean, hizkuntza baztertzaillearen berri ere eman behar dio erabiltzaileari, betiere behar bezala markatuta, aurrerago azalduko dugun moduan.

Metodologia

Lan hau egiteko erabili dugun metodologia hiru zatitan banatuta dago. Lehenik, ahalik eta modu sistematikoenean jarduteko, lau arlo nagusitan banatu dugu lana, eta, atal bakoitzean,

hizkuntza baztertuailea detektatzeko irizpideak ezarri ditugu. Ondoren, glosario tematiko bana osatu dugu arlo bakoitzerako, baztertuaileak izan daitezkeen hitzak jasotzen dituen; hala, errazago detekta daiteke adibideetan erabilitako hizkuntza baztertuailea. Azkenik, detektatutako hizkuntza baztertuaile hori lantzeko irizpide nagusiak zehaztu ditugu arlo bakoitzerako.

Beste alde batetik, generoari buruz hitz egitean, sexu-/genero-sistema binarioa hartu dugu kontuan batez ere, orain arteko hiztegia ez baita beste ikuspunturik izan.

Sexismoa eta androzentrismoa

Hauxe izan da gai mamitsuena, eta lan gehien eskatu duena. Gai honetako irizpideak ezartzeko, batez ere EHUn *Euskararen erabilera inklusiboa* (2018) eta Barquín *Euskararen erabilera ez sexista* (2008) azterlanetan oinarritu da gure lana. Nahiz eta azken hori 2008koa izan, pentsatzen dugu lanik osatuena izaten jarraitzen duela. Sarreretan, erabilera-markak erantsi ditugu hala zegoen kasuetan. Adibideetan, berriz, desagokiak moldatu egin ditugu, edo kendu, eta berriak gehitu.

Honako gai hauek jarri nahi izan ditugu erdigunean:

- Familia-loturak: emakumezkoz eta gizonezkoz osatutako ohiko ahaidetasun-bikoteak detektatu eta berrikusi behar dira; izan ere, zenbait kasutan, maskulinoari zegokion bakarrik zen hiztegi-sarrera (adibidez, *aitontasun* bazegoen, baina horren baliokide femeninoa falta zen, *amontasun*).
- Erabilera asimetrikoa: bi generoak adierazteko baliokidetzat hartzen diren hitz-bikote batzuek ez dute esanahi bera maskulinoan eta femeninoan. Oro har, emakumeei dagozkienek «esanahi mugatuagoa edo konnotazio peioratiboagoak dauzkate» (Barquín, 2008). Esaterako, *bulartsu*, gizonezkoen kasuan, «ausarta» esanahiarekin erabili ohi da, eta, emakumeen kasuan, «bular handiak dituen» izendatzeko.
- Estereotipoak: gizonen eta emakumeen irudi ahalik eta orekatuena eta estereotiporik gabekoa erakutsi behar dute hiztegi adibideek; hortaz, saihestekoak dira emakumeak ahul/biktima/sexu-objektu/ama sakrifikatu gisa irudikatzen dituzten adibideak, baita gizonak indartsu/andreko/garaile/heroia gisa irudikatzen dituztenak ere.
- Lanbideak: tradizioz gizezkoek/emakumezkoek bete izan dituzten ogibideak berrikusi ditugu (gizonak: mekanikariak, enpresariak, zirujauak...; emakumeak: idazkariak, garbitzaileak, zaintzaileak...), eta, posible den kasuetan, oreka bat bilatzen saiatu. Gainera, gatzelaniaren kasuan, badira emakumea senarraren lanbidea aintzat hartuta izendatzen duten hiztegi-sarrerak; adibidez, *regenta* dugu *regentearen* emaztea adierazteko.

LGBTIfobia

LGTBIQ+ kolektiboko pertsonenganako gaitzespena, mespretxua eta jarrera diskriminatzailerak ere aztertu ditugu. Batetik, zenbait sarreretan erabilerari buruzko oharak gehitzeko beha-

rra ikusi dugu; bestetik, aproposa iruditu zaigu nazioartean erabiltzen diren zenbait maileguzko hitz gehitzea (*queer*). Irizpideak eratzeke, sexismoan erabili ditugun baliabide berak erabili ditugu, askotan sexismoa eta LGTBIfobia batera lantzen direlako. Iturri horiez gain, *La primera rosa: identidad cultural y derechos humanos LGBTI en el mundo* (2018) erabili dugu, hainbat hiztegitako LGTBQ+ lexikoaren tratamenduari buruz hitz egiten baitu. Horiek horrela, puntu hauetan jarri dugu fokua:

- Bikote eta familiei dagokienez, ez dago irudikapen-eredu bakar edo idealik. Badira bi ama edo bi aitako familiak, guraso bakarrekoak, eta abar.
- Sexu- eta genero-identitate jakin batzuei lotutako estereotipo eta karakterizazio diskriminatzaileak ez jasotzen saiatu behar dugu (adibidez, identitate bat promiskuitatearekin edo ilegaltasunarekin lotzea); horrekin batera, transfobia eta homofobia islatzen eta sus-tatzen duten adibide eta esamoldeak saihestu behar ditugu.

Arrazakeria eta migrazioa

Arrazakeriaren eta migrazioaren inguruan, zantzu xenofobia izan dezaketen hitzak detektatu ditugu, eta dagokien kasuetan gaitzespen hori adierazten duten markak gehitu. Halakoak to-patzeko, beste hizkuntza batzuetako lanei erreparatu diegu, hala nola Survival International go-bernuz kanpoko erakundearen glosarioa. Bestalde, *Berriaren* estilo-liburuan migrazioari buruz aurkitu ditugun irizpide hauek ere aintzat hartu ditugu:

- Migratzaileek ez dute talde homogeneousorik osatzen; hortaz, orokortzerik ez.
- *Migrazio*, *migratzaile* eta *migratu* hitzak erabiltzea gomendatzen da.
- Hizkera xenofobia saihestuko dugu.

Kapazitismoa

Kapazitismo hitzak desgaitasuna duten pertsonen aurkako diskriminazioa esan nahi du (in-gelesezk *ableism* hitzaren bide beretik eratu da). 2019an, NBEk estrategia bat garatu zuen, desgaitasuna duten pertsonen jasaten dituzten trabak ikusarazi eta haien gizarteratzea errazteko helburuarekin: *Disability-Inclusive Language Guidelines* (2019). Gida horretan, besteak beste, komunikazioaren eta hizkuntzaren garrantzia aipatzen da. Esan beharra dago txosten bera hiz-kuntza askotara moldatu dela, eta, segur aski, hasieran ingelesezko diseinatuko zela. Horrega-tik, ez da guztiz moldatzen euskararen beharretara; hala ere, hango edukietan oinarrituta, guk zeregin hauetan jarri dugu indarra:

- Etiketak eta estereotipoak saihestu: desgaitasunak bizitzaren eta giza aniztasunaren parte dira; hortaz, alde batera utziko ditugu tonu dramatiko edo sentsazionalistak. Desgaita-suna duten pertsonen lorpenak ez ditugu ezohiko gertaera gisa goraiatu behar.

- Adibideetan, eufemismo gutxiesgarriak eta esamolde kapazitistak saihestuko ditugu, hala nola *diabertsitate funtzionala, gorraarena egin, dar palos de ciego...*

Aldaketak

Aldaketak sarreretan

Hiztegi-sarrerei dagokienez, lehenik eta behin, erabilera zein den aztertu dugu, eta hizkuntza inklusiboaren ikuspegitik onargarriak ez diren hitz, esanahi eta esamoldeei oharrak edo erabilera-markak erantsi dizkiegu. Esan beharra dugu sarreretan aldaketa egiteko momentuan ez dagoela subjektibotasuna saihesterik. Hala ere, guk proposatutako aldaketek Elhuyarreko hiztegi-gintza taldearen oniritzia jaso dute. Taula honetan, alde aurretik aipatutako irizpideetan oinarrituta euskarazko eta gaztelaniazko ataletan erantsi ditugun erabilera-markak bildu ditugu:

Euskara-atalean	Gaztelania-atalean	Azalpena
<i>arrt.</i>	<i>vulg.</i>	Hitz edo erabilera arrunta (gizabidearen arauak gaitzes-ten dutena)
<i>lgart.</i>	<i>col.</i>	Lagunarteko hizkerako hitza edo adiera
<i>gutxiesgarria</i>	<i>despectivo</i>	Erreferentzia egiten dioten pertsona edo objektuari mespretxu egiten diotenak
<i>sarritan gutxiesgarria</i>	<i>a veces despectivo</i>	<i>Gutxiesgarriaren</i> antzekoa, baina erabilera jakin batzue- tan bakarrik

1. taula. Marka semantikoak.

Aipatzeko moduko adibidea iruditzen zaigu *etxeakoandreak* azpisarreraren kasua, adibidez. Ez da horren ohikoa izaten hiztegia definizioak aurkitzea, baina, kasu honetan, definizioa aldatzea proposatu genuen, irudietan ikusten den moduan.

etxeakoandreak; etxeakoandrezketan



Subentrada de: etxeakoandre

(gehienetan *ibili, jolatu* aditzekin) juego de niñas que consiste en imitar a las amas de casa

neskatoak etxeakoandrea: las niñas jugando a amas de casa

etxeakoandreak; etxeakoandrezketan

Honen azpisarrera da:

(gehienetan *ibili, jolatu* aditzekin) juego que consiste en imitar a las amas de casa

neskatoak etxeakoandrea: las niñas jugando a amas de casa

1. irudia. *Etxekoandreak* azpisarrera Elhuyar Hiztegia.

Era berean, gizonei eta emakumeei dagozkien hiztegi-sarreraren arteko simetriarekin jokatu nahian, oraintsu arte genero bakarrarekin erabiltzen ziren, eta hedapena izan duten sarrerak eta adierak gehitu ditugu. Adibidez, *plazagizon* sarreraren pareko femeninoa ez zen sarrera euskarazko hiztegieta; gizartearen bilakaerarekin batera, corpusetan ere hitzaren femeninozko agerpenak ugaritu dira, eta *plazandre* sarrera berria sortu dugu hiztegian:

plazandre

iz. mujer brillante/desenvuelta, que no se achica ante el público
plazandrea zen, ederki moldatzen zen taula gainean: era una mujer habituada a los escenarios, se desenvolvía muy bien

2. irudia. *Plazandre* sarrera Elhuyar Hiztegian.

Aldaketak adibideetan

Adibideetan ere argi agertzen zaizkigu aipatutako irizpideak betetzen dituzten hamaika kasu. Alde batetik, gaur egun desegokiak edo zalantzezkoak izan daitezkeen adibideak moldatzen aritu gara. Halakoak ordezteko momentuan, hiztegirako adibideak euskarazko corpusetatik erauzi eta hautatu dira, eta, hortaz, gizartearen unean uneko hizkuntzaren erabileraren isla dira. Batez ere, sarreraren esanahiarekin zerikusirik ez duten adibide desegokiak aldatu ditugu. Adibidez, *itsaski*:

itsaski

1 iz. **marisco**
 2004an, legez kanpoko 21 etorlin hil ziren Morecambe badian (Ingalaterra), gauez itsaskiak biltzen ari zirela: en 2004, 21 inmigrantes murieron en la bahía de Morecambe (Inglaterra), mientras mariscaban de noche


itsaski

1 iz. **marisco**
itsaskia ez zait gustatzen: no me gusta el marisco
 ehiza, fruitu-biltzea eta itsaskitan aritzea dute bizibide: la caza, recolección, marisqueo y pesca son sus formas de subsistencia


3. irudia. *Itsaski* sarrera Elhuyar Hiztegian.

Bestetik, emakumezkoen ikusgarritasuna neurtzen saiatu gara. Gure hipotesia zera zen: hiztegi adibideetan maskulinoaren erabilera zabalagoa da, eta, hori baieztatzeko, azterketa bat egin genuen. Horretarako, gizonei erreferentzia egiten dieten hitzak hautatu, eta haien baliokide femeninoekin alderatu genituen. Euskararen kasuan, bien arteko aldea ez da oso agerikoa; halere, gizonezkoen presentzia (% 54) emakumezkoena (% 46) baino handiagoa da. Gaztelaniazko adibideetan, aldiz, nabarmenagoa da aldea; gizonezkoei erreferentzia egiten dieten adibideak % 65 dira, eta emakumeei dagozkienak, % 35. Esan beharra dago datuetan maskulino pluralak kendu ditugula, erabilera generiko moduan hartu ditugulako (ez dugu *padres* kontuan

hartu biontzat erabil daitekeelako, adibidez). Eta, hala ere, emakumeari erreferentzia egiten diotenak gutxiagotan agertzen dira.




4. irudia. Generoaren erabilera euskaraz.



5. irudia. Generoaren erabilera gaztelaniaz.

Hitanoaren kasuan ere, tokaren eta nokaren arteko desoreka dago. Aldaketak egiteko, desoreka hori kontuan hartu dugu, eta gizonen adibideak emakumeenekin ordeztu ditugu. Estrategia horren bidez, jokabide, jarrera eta egiturek eragiten dituzten desabantaila-egoerak orekatu nahi izan ditugu. Gizonek eta emakumeek normalean betetzen ez dituzten roletan jartzean, rol berriak sortzea bilatzen dugu. Egia esan, desoreka handiagoa espero genuen erabileran; sorpresa ona izan da.



6. irudia. Hitanoaren erabilera generoaren arabera.

- Gizon/hombre hitzaren erabilera espezifikoa

Tradizioan eta literatura idatzian, *gizon* eta *hombre* hitzak erabili izan dira gizonak bakarrik izendatzeko (erabilera espezifikoa) eta baita gizonak eta emakumeak izendatzeko ere (erabilera generikoa). Hiztegiko adibideei dagokienez, *gizon* hitza erabilera espezifikora mugatzea erabaki genuen Elhuyarren; hortaz, hitz horren agerpen guztiak errepasatu, eta erabilera generikoak moldatu ditugu.

- Estereotipoak

Estereotipoei dagokienez, aztertu nahi izan dugu nola islatzen diren hiztegiko adibideetan emakumezkoei eta gizoneskoei tradizioz egotzitako rolak. Adibide askoren arabera, emakumea biktima, otzana eta esanekoa da; gizona, berriz, ausarta, oldarkorra eta mozkorra. Gizonen adibideek maiztasun handia izan duten arren, emakumeen estereotipoak askoz gehiagotan aurkitu ditugu, bikoitza baino gehiagotan. Esaterako, *lisatu* sarreran:

lisatu, lisa, lisatzen  

1 du ad. [arropa] **planchar, alisar**

alkandora guztiak amak lisatzen dizkit: mi madre me plancha todas las camisas

lisatu, lisa, lisatzen


1 du ad. [arropa] **planchar, alisar**

josi, errematatu eta lisatu ondoren, bezeroari ematen zaio: una vez cosida, rematada y planchada se entrega al cliente

7. irudia. *Lisatu* sarrera Elhuyar Hiztegian.

- LGTBIfobia, arrazakeria eta migrazioa

LGTBIfobiari, arrazakeriari eta migrazioari lotutako kasuak ez ziren oso ugariak adibideetan. Halere, desagokiak iruditu zaizkigun adibide batzuk aldatu ditugu. Adibidez, *negro* sarreran, bi aldiz agertzen zen pertsona beltzak musikari onak direla; estereotipo aski ezagun bat.



8. irudia. *Negro* sarrera Elhuyar Hiztegia.

- Kapazitismoa

Beste gaiak baino errotuago dago desgaitasuna gure gizartean, edo behintzat hori interpreta daiteke aurkitu dugun adibide-kopuruaren arabera. Zaila egin zaigu aldaketak egiteko nahikoa arrazoi topatzea, izendapenak behin bakarrik agertzen direlako gehienetan, eta sarreran bertan izaten dira. NBEk ematen dizkigun irizpideetan esaten digute pertsona beti aurretik jarri behar dugula (*desgaitasuna duen pertsona*, esaterako), baina horrek markaren bat eskatzen al digu desgaitasunak deskribatzeko dauden sarrera guztietan? Azkenean, irizpidea bera ere eztabaidagarria denez, gai hau ez dugu gehiago jorratu.

Arlo guztien artean, denetara, 400 aldaketa inguru izan dira, eta gehienak ikusgai daude online bertsioan ere.

Ondorioak

Orain dela 6 hilabete egin genuen lehen lanaren entrega, eta beste ikuspuntu batetik ikus dezakegu orain. Hiztegiaren erdia aztertu genuen, eta beste erdia gelditzen da egiteko. Baina, Elhuyarrek hiztegiaren beste erdia aztertzeko aukera eman didanez, GRALean aipatu nituen hobekuntza batzuk aplikatzeko parada izango dut, baita garai hartan imajinatzen ez nituenak ere.

Adibidez, esaldiak lematizatzeak ekarriko lituzkeen onurak aipatu genituen aurreko lanean: Excel dokumentu soil baten ganean egin genuen lan, eta bilaketak egiteko aukerak nahiko murriztak dira. Corpus lematizatueta, berriz, hitz bakoitzaren edozein forma bere le mari lotua izaten da (adibidez, aditzetan: infinitibora). Lematizatzaile bat lortu dugu, eta bigarren erdiko adibide guztiak lema horien bidez bila ditzakegu.

Uste dugu 2022an lan honen ziklikotasunari buruz esan genuena arazoa dela oraindik (Sagarzazu, 2022) :

Gai kritiko batzuetan terminoak iraungitze datarekin erabiltzen dira. Zenbat aldiz aldatu dira, esate baterako, termino “egokiak” desgaitasunaren gaian: *ezindutik elbarrira*, *gaitasun desberdinetara*, eta egun erabiltzen dugun *desgaitura*. Eufemismo eta tabuaren arteko jazarpen lan zikliko baten aurrean gaude [...] Aurreikusten dugu guk egindako lan hau ere ziklikoa izango dela. Ez dakigu esaten bost edo hamar urtero errepikatu beharko den orain egindako eguneratzea, baina epe batzuk finkatu beharko dira etorkizunean.

Baina orain badugu eskura garai hartan pentsaezina zitzaigun konponbide bat: automatizazioa. Hizkuntzaren prozesamenduaren arloak (NLP, ingelesez) informatika, adimen artifiziala eta hizkuntzalaritza uztartzen ditu, eta hizkuntzaren bidez pertsonen eta makinaren arteko komunikazioa lortzea du helburu. Garapen handia izan du azken urteotan, eta testua sailkatzeko oso erabilgarria da. Gure lana, azken finean, hizkuntza baztertzaile edo ez-baztertzaile moduan sailkatzea izan da (asko laburtzen badugu behintzat). Eta horixe bera da programa horiek entrenatzeko eskatzen diguten informazio bakarra. Beraz, ziklikotasunari aurre egin diezaiokegu testua baztertzaile edo ez-baztertzaile moduan sailkatzen duen (eta nekatzen ez den) tresna baten bitartez. Lehen iragazki moduan joka dezake, eta, beraz, etorkizuneko lanak hortik bideatzea pentsatu dugu.

Beste alde batetik, lana osatzeko, arlo gehiago har daitezke kontuan. Hasiera batean egin genuen planteamenduan, adinkeria ere beste gaiekin batera sartu genuen. Osasunaren Mundu Erakundeak honela definitzen du adinkeria: «Adin-arrazoiengatik adin handiko pertsonen eragindako diskriminazioa, aldean edo norbanakoen aurka haien adinean oinarrituta gauzatzeko den diskriminazioa». Baina euskaraz dagoen material-eskasia dela eta ez dugu lanean sartu. Hizkuntzan duen isla aztertzen hasiak dira beste mintzaira batzuetan, ingelesez hasita (gehienetan bezala), baita lehen gidalerro batzuk ezartzen ere; baina euskaraz daukan isla ez da askorik landu orain arte, eta beste hizkuntzetako gidak ez dira euskararen ezaugarrietara moldatzen. Halere, interesgarria izango litzateke adinkeria etorkizunean lantzea, euskarazko materiala gehiago landu ahala.

Bukatzeko, hitzen axola azpimarratu nahi dugu. Hitzek garrantzia dute. Hizkuntzak hiztunen munduaren ulermenean eragiten duela pentsatu edo ez, ukaezina da hitzak mintzeko edo laguntzeko erabil daitezkeela. Ikusgarritasunak ere modu berean jokatzen du. Talde gutxituak (edo *perlak*) oholtzetara ateratzen ez baditugu, arrotzak egingo zaizkigu plazaratzen direnean.

Eskerrak eman nahi dizkiot Elhuyarri, eta batez ere Klara Ceberiori, lana egiteko aukera emateagatik, baita nire tutore izan den Eli Manterolari ere, besteak beste horren zuzenketa finak egin eta norabidea zuzentzeagatik.

BIBLIOGRAFIA

- BARQUÍN, Amelia, 2008, *Euskararen erabilera ez sexista*. Gasteiz, Emakunde, ISBN 978-84-89630-13-0.
- BERRIA, 2013, *Estilo liburua: kode deontologikoa*.
- DE LA TORRE ESPINOSA, M., 2018, *La primavera rosa: Identidad cultural y derechos humanos LGBTI en el mundo*. Editorial UOC.
- FERNÁNDEZ CASETE, June, 2018, *Euskararen erabilera inklusiboa*, UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritza eta Pikara Magazine (arg.).
- LLEDÓ CUNILL, Eulàlia; M.^a Ángeles CALERO FDEZ eta Esther FORGAS BERDET. *De mujeres y diccionarios. Evolución de lo femenino en la 22.^a edición del DRAE*. Madril: Emakumearen Institutua, Lan eta Gizarte Gaien Ministerioa, 2004. <https://www.usc.gal/export9/sites/webinstitucional/gl/servizos/oix/descargas/2004DeMujeresyDiccionariosEvolucionFemenino.pdf>.
- NAZIO BATUEN ERAKUNDEA, 2019, *Disability-Inclusive Language Guidelines*. <https://www.un-geneva.org/sites/default/files/2021-01/Disability-Inclusive-Language-Guidelines.pdf>
- SAGARZAZU, Eneko, 2022, «Hizkuntza baztertuailearen detekzioa Elhuyar Hiztegian». Itzulpengintza eta Interpretazio Graduko Amaierako Lana. Euskal Herriko Unibertsitatea. <https://docs.google.com/document/d/1j2X48tbVTDwT37UJqh1IXNNuv5S2Ungk/edit?usp=sharing&ouid=107889861274489808584&rtpof=true&sd=true>
- SURVIVAL INTERNATIONAL, (d. g.). *Terminología—Survival International*. (2022ko apirilaren 27an berreskuratua: <https://www.survival.es/conocenos/terminologia>)

Resumen

El Diccionario Elhuyar se encuentra entre los recursos lingüísticos más consultados en euskera (más de 6 millones de visitas en 2022). En este trabajo, hemos analizado el contenido del Diccionario Elhuyar y hemos identificado algunos indicios de lenguaje discriminatorio. Entendemos el lenguaje discriminatorio como expresiones que denotan cualquier tipo de discriminación (por género, orientación sexual, raza, discapacidad...). Estos últimos años se ha extendido la conciencia de usar un lenguaje no sexista e inclusivo, y, como los diccionarios deben ser el reflejo del lenguaje actual, en el diccionario también ha surgido la necesidad de abordar este tema. La primera edición del Diccionario Elhuyar se publicó en 1996, y, aunque desde entonces se han añadido y actualizado miles de entradas, podemos encontrar perlas que se mantienen firmes ante el paso del tiempo.

Résumé

Le Dictionnaire Elhuyar est l'une des ressources linguistiques les plus consultées en basque (plus de 6 millions de visites en 2022). Dans cet article, nous avons analysé le contenu du dictionnaire Elhuyar et identifié des traces de langage discriminatoire. Nous entendons par langage discriminatoire les expressions qui dénotent tout type de discrimination (genre, orientation sexuelle, race, handicap...). Ces dernières années, la sensibilisation à l'utilisation d'un langage non sexiste et inclusif s'est répandue, et comme les dictionnaires devraient être le reflet de la langue actuelle, la nécessité d'aborder cette question a également été soulevée dans le dictionnaire. La première édition du dictionnaire Elhuyar a été publiée en 1996 et, bien que des milliers d'entrées aient été ajoutées et mises à jour depuis lors, nous pouvons trouver des perles qui résistent à l'épreuve du temps.

Abstract

The Elhuyar Dictionary is among the most consulted linguistic resources in Basque (more than 6 million visits in 2022). In this paper we have analyzed the content of the Elhuyar Dictionary and identified traces of discriminatory language. We understand discriminatory language as expressions that denote any type of discrimination (gender, sexual orientation, race, disability...). In recent years, awareness of using non-sexist and inclusive language has spread, and as dictionaries should be a reflection of current language, the need to address this issue has also arisen in the dictionary. The first edition of the Elhuyar Dictionary was published in 1996, and although thousands of entries have been added and updated since then, we can find pearls that stand the test of time.